



❖ DYA

Larrialdi-ikastaroa DYAre eskutik

Larrialdietan nola jokatu erakutsiko dute otsailaren 17tik aurrera, hiru asteko ikastaroan, eta 'Sorosle Titulua' lortuko du ikastaroa egiten duenak. Izena emateko: 943 46 46 22.

LARRIALDI kasuetan nola jokatu, zer egin, erakutsiko dute otsailaren 17tik aurrera, Hernanin, DYAk antolatu duen ikastaroan. Oinarrizko ikastaroa izango da, egunero aurkitu ditzakegun egoerei aurre egiten ikasteko.

Otsailaren 17an hasiko dira ikastaroak, eta hiru aste iraungo dute. Martxoaren 9ra bitartean, asteleheneratik ostiralera izango dira, 19:00etatik 21:00etara, Inmakulada ikastetxean (Sandiusterra, 4). DYako mediku eta laguntzailerak emango dute.

Eguneroko zauri arinak edo larriagoak

Ikastaroan ikusiko eta ikasiko da, nola jokatu, egunero geure inguruan sortu daitezkeen arazoaren aurrean; arazo arin edo larriagoen aurrean. Bihotz eta biririkak suspertzen, zauriak sendatzen, hezur-hausturak konpontzen, erreak sendatzen... Oinarrizko arazoak ikusiko dira ikastaroan, gauza



Ikastaroak alde teorikoa eta praktikoa izango ditu.

Oinarrizko arazoak ikusiko dira ikastaroan, bihotz eta biririkak nola suspertu, zauriak nola sendatu, hezur-hausturak nola konpondu, erreak nola sendatu...

arruntak, baina oso baliagarri izan litezkeenak. Modu erraz, eroso eta atseginean erakutsiko dira kontu horiek, teoria eta praktika uztartuta.

'Sorosle Titulua' eta EHUko 2 kreditu

Ikastaro osteko frogak gainditzen dituenari Sorosle Titulua emango dio Gipuzkoako DYAk. Horrez gain, Euskal Herriko Unibertsitaterako bi kreditu ere konbalidatu ahal izango ditu ikastaroa egiten duenak.

Ikastaro horiek Hernanin urtero egiten ditu DYAk, eta baita Gipuzkoako beste herri batzuetan ere: Donostia, Tolosa, Errenteria, Azpeitia...

Izen-ematea zabalik

Ikastaroan parte hartzeko ez da ezagutzarik behar, oinarrizko ikastaroa delako, eta nahi duena apuntatu liteke, otsailaren 15era bitarte, telefono honetan: 943 46 46 22. Prezioa: 90 euro. ||

❖ SOLASALDIK

Euskal Herriko historiari buruzko solasaldietan izena emateko epea ostirala arte

Datorren asteartean hasita, eta bost egunetan, Euskal Herriko historiari buruzko solasaldiak antolatu dituzte Biteri kultur etxean. Solasaldiak dohainik dira, eta parte hartzeko izena eman behar da, Biteri kultur etxean bertan. ||

❖ BILERA

Gurasoen bilera gaur, DBHko hiru ikastetxeen fusioari buruz

Urumea, Elizatxo eta Langile ikastoletako gurasoei dei egin diete, gaur Biterin egingo den bilerara azaltzeko. DBHko hiru ikastetxeen fusioa aztertuko dute gaurko bileran, «guraso guztien iritzia zein den jakitea garrantzitsua delako». Seme-alabak 6garren mailan dituzten gurasoek egin dute deialdia, gaur, 19:00etan Biterin. ||

❖ UDALA

Bilera irekia gaur, alokairuzko etxebizitzaren arauak zein behar duten proposatzeko

Jendearen proposamenak jaso nahi ditu Udalak, alokairuzko etxebizitza publikoek behar lituzketen arauak buruz. Udalak alokairuzko etxebizitzaren parke publikoa osatu du, eta orain araudia zehazten ari da. Horretarako deitu ditu herritarrak, euren iritzia eman eta gaia sakontzeko. Joan den asteazkenean egin zuten lehendabiziko bilera, eta 40 bat herriar bildu ziren. Egun hartan bildutako proposamenak aztertu eta berriren bat jaso nahi da gaurko bileran. Biterin, 19:30etan. ||

Aitzol Arrieta, Ekhi Oñate eta Ekaitz Telleria aske geratu ziren atzo

Hernaniko hiru gazteak baldintzapean askatu zituzten atzo, arratsaldeko 20:30ak aldean. Arrieta eta Oñate Alcalako espetxetik atera ziren eta Telleria Soto del Realetik.

AITZOL Arrieta, Ekhi Oñate eta Ekaitz Telleria hernaniarrak aske geratu ziren atzo, baldintzapeko askatasunean, 40.000 euroko fidantza ordainduta. 2009ko martxoaren 31n Espainiako poliziak Her-

nanin eta Urnietan egindako operazioaren ondoren espetxeratu zituzten hiru gazteak.

Operazio hartan, zortzi gazte atxilotu zituzten Segiko kide izatea leporatuta, eta kale erasoetan parte hartzea lepo-

ratuta. Gerora beste bi gazte beren burua aurkeztu zuten epailearen aurrean eta horietako bat, Ekaitz Telleria, kartzelara sartzeko agindu zuen epaileak. Epailearen aurrean denek ukatu zituzten akusa-

zioak, eta inkomunikazio al-dian tratatu txarrak jasan zituztela salatu zuten.

Geroztik, 5 kide aske geratu dira baldintzapean, eta atzo, beste 3, Arrieta, Oñate eta Telleria atera ziren espetxetik. ||

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 676 78 60 93
20120 Hernani

ezkati

ileapaindegia

Iturregi, 4
Hernani
943 55 65 56
Hartu ordua

MARI FERRE

ARRANDEGIA

ORDUTEGIA
GOIZEAN: 8:00 ~ 14:00
ARRATSALDEAN: 16:30 ~ 20:00

NAGUSIA 36 943 550 489

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauz:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Eguzkia goizean goizetik, eta eguerdira arte. Hego mendebaldetik sartuko dira lainoak, eta iluntze aldera ia erabat lainotuko du. Tenperatura maximoak epelantza. Min. 3° / Max. 13°.

BIHAR Bihar goizetik hasiko du euria. Jasa handirik ez du botako. Arratsaldea lainotua izango dugu, baina ez du euririk egingo. Hego-mendebalalako joko du nahiko bizi. (euskaime)

IGERIKETA



Hernaniko igeriketa taldea, sariak soinean dituztela.

Emaitza bikainak Hernaniko igerilariek

HERNANIKO XIII. Trofeoan, emaitza bikainak lortu zituzten hernaniarrak, kategoria eta froga askotan. Guztira 9 lehenengo postu lortu zituzten, 7 bigarren postu, eta 3 hirugarren postu.

Hernaniz gain, Zarautz eta Buruntzaldea taldeak ere bertan izan ziren, eta Buruntzaldea irabazi zuten taldekako bi frogak. ||

XIII. IGERIKETA FROGA - HERNANIKO EMAITZAK

	Infantilak neskak	Postua	Infantilak mutilak	Postua
50m tximeleta			Alain Gartzia	1
50m bular	Paula Odriozola	2	Aitor Huizi	1
			Xabier Lizeaga	2
50m libre	Itsaso Tolosa	1	Kepa Sañudo	1
	Naiara Beldarrain	2	Odei Ibarгойen	2
	Olaia Corbella	5	Xabier Elizetxea	3
			Julen Sarasua	4
100m lau estilo	Itsaso Tolosa	1	Aitor Huizi	1
	Naiara Beldarrain	4	Kepa Sañudo	2
	Paula Odriozola	7	Xabier Lizeaga	4
			Alain Gartzia	5
			Odei Ibarгойen	7
			Julen Sarasua	8
			Xabier Elizetxea	11
	Nagusiak neskak	Postua	Nagusiak mutilak	Postua
100m bular			Jon Ander Izuzkiza	1
100m libre	Miren Bardaji	1	J.Imanol Fernandez	3
	Janire Ezeiza	2	Xabat Erroizenea	4
	Sara Erauskin	8		
100m lau estilo	Miren Bardaji	1	Jon Ander Izuzkiza	3
	Janire Ezeiza	2	Xabat Erroizenea	7
	Sara Erauskin	13	J.Imanol Fernandez	8

Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Konsultatik agurra
Zuekin hogeitaz urte pasa ondoren, ezin joan ezer esan gabe.

Idatzi honen bidez agurtu nahi zaituztet, banan-banan ezin baitut.

Gustora eman dizkizuet aholkuak, gustora egin zainketak, gustora egon naiz zuen artean.

Hogei urte hauetan nere-

tzat oso inportanteak izan zarete; ez zaituztet ahaztuko.

Aurrerantzean ondo izango zaretelakoan, agur bero bat, nere konsultara etorri behar izan duzenoi, baita ere gaixoei, haien familia eta zainzaileei.

Eulogia Zabala Jauregialzo
(Hernaniko osasun zentruko erizaina)

GALDUTAKOAK

Ume kapazoaren txasisa galdu da

Jane Nomad markako txasisa galdu da, ume kapazoarena: e-estruturatu, alegia (kurpilak...). Urbieta kalean izan da.

Deitu: 656 73 75 19. ||

IRAGARKI MERKEAK

Neska arduratsua eta erreferentziaduna umeak zainduko lituzke arratsaldetan.

Deitu: 646 940 487

Bigarren eskuko bazarra, denetatik eta zentimo gutxigatik hasita, baita zilarra ere fabrikako prezioetan: **otsailaren 3tik aurrera (10:00etatik 13:00etara)**. Egun gutxi batzuetan bakarrik, **Karmelo Labaka 1** zenbakian.

Pisu baten bila nabil alokaituan (abala), 2 logela. Deitu: 608 671 844.

Pisua salgai Karabelen. 60m², 2 logela, sala, sukalde eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modelo, bigarren eskuko. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna**. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, **hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua** 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzietan 2, behean**. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2)**. 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

IES HERNANI BHI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

12-18

Etorkizuneko Bideak eraikiz

INFORMAZIO GEHIAGO HERNANIKO ERREFERENTZIZKO IKASTETXEETAN

Telefonoak:

☎ 943 551188

☎ 943 551958

☎ 943 330080

☎ 943 552633



MATRIKULA EPEA: OTSAILAK 1-12

BATXILERGOAK



GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA



HEZIKETA ZIKLOAK



MEKANIZAZIOA (ERDI MAILA)
INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK (ERDI MAILA)
PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA (GOI MAILA)
INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK (GOI MAILA)